

# MARA VAZ DACUÑA

E Maila | Bertsoa | 1. saria

Kaixo, nire izena Mara Vaz Dacuña da. Beasainen bizi naiz eta 10 urte ditut. 2014ko apirilaren 24ean jaio nintzen. Andramendi ikastolan, LH5ean nago aurtengo ikasturtean nire ikaskideekin batera. Bertsoak txikitatik gustatu izan zaizkit, orain bertso eskolan ikasi eta gero nire bertso horiek irakurtzen ditudanean, poto ugari dituztela konturatzen naiz. Asko gustatzen zait lagunekin jolastea, antzeztea, bertsoak sortzea... OSO ALAIA ETA BIHURRIA NAIZ ETA HORI GUSTUKO DUT!



## LURRAREN KUTSADURA

Hemen naukazue lurra  
gehien natura ta ura  
baina gero azkenean  
bihurtuta kutsadura  
nik nahiko nuke zaborra  
botatzea bai basura  
bestela gero itsasotik  
zabaltzen dugu mundura  
zaborra arrainek janda  
sartzen da gure barrura  
ez dugu nahi medikuan  
izan kriston abentura

gehiago zaindu behar dugu

gure biziko natura

mesedez eskatzen dut nik

hori da gure ardura

Doinua: Habanera